



2013KO MAIATZAREN 10EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko maiatzaren hamarrean, arratsaldeko ordubi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2013ko apirilaren 26an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2013ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 23 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BERROGEITA HAMALAU MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO ETA HOGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (54.999,33 €) takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GASOLEO-C HORNIDURARAKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA.-

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko foru diputatuak 2012ko azaroaren 21ko foru aginduaren bitartez, NOROIL S.A. (IFZ.:A48302285) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez gasoleo-C hornitzeko esparru akordioa (X12007) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalarari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2012ko abenduaren 26-an emandako txostenaren arabera proposatu du Gasoleo-Cren hornikuntzako kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Lazkaoko Udalak izandako gasoleo-Cren kontsumo zenbatetsia kontuan izanik, gu-txi gorabehera, urteko hirurogeita hamabi mila eta bostehun (72.500 €) euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe. Gastuak segidako traktu izaera iraunkorra du, konpromiso kreditu gaiari dagokion finantza eta aurrekontu xedapenen ondorioetarako.



Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua NOROIL, S.A. enpresari esleitzea, izenpetutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak onartzen ditu:

LEHENENGO.- "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez gasoleo-C hornitzeko esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X12007) NOROIL S.A. enpresari (IFZ.:A48302285) esleitzea, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- NOROIL SA, N.I.F.:A48302285, enpresaren alde baimentzea eta xedatzea aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, udal aurrekontuan, funtzional ezberdinetan, gasoleo-C kontsumoen gastua jasotzen duten 221.04 kontusailen kargura.

HIRUGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

IV.- GAS NATURALAREN HORNIDURARAKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA.-

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko foru diputatuak 2012ko azaroaren 27ko foru aginduaren bitartez, ENDESA ENERGIA S.A.U. (IFZ.:A81948077) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez gas naturala hornitzeko esparru akordioa (X12013) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalarari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2012ko abenduaren 26an emandako txostenaren arabera proposatu du Gas naturalaren hornikuntzako kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Lazkaoko Udalak izandako gasoleo-Cren kontsumo zenbatetsia kontuan izanik, gutxi gorabehera, urteko hogeita hamalau mila (34.000 €) euroko gastua ateratzen da, BEZ-ik gabe. Gastuak segidako traktu izaera iraunkorra du, konpromiso kreditu gaiari dagokion finantza eta aurrekontu xedapenen ondorioetarako.

Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua ENDESA ENERGIA S.A.U. enpresari esleitzea, izenpetutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak onartzen ditu:



LEHENENGO.- "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez gas naturala hornitzeko esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X12013) ENDESA ENERGIA S.A.U. enpresari (IFZ.:A81948077) esleitzea, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- ENDESA ENERGIA S.A.U., N.I.F.:A81948077, enpresaren alde baimentzea eta xedatzea aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, udal aurrekontuan, funtzional ezberdinetan, gasoleo-C kontsumoen gastua jasotzen duten 221.04 kontusailen kargura.

HIRUGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

V.- SU ITZALGAILU ERAMANGARRIEN HORNIDURA ETA MANTENIMENDURAKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA.-

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko foru diputatuak 2012ko azaroaren 27ko foru aginduaren bitartez, BABESA SUZAI S.A. (IFZ.:A20095196) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez "Su itzalgailuak hornitzea eta mantentzea bai hornitutakoko berriak bai lehen zeudenak, baita BIEak, sute-ahoak eta zutabe lehorrak mantentzea" zerbitzua emateko esparru akordioa (X12018, 1. Lotea) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalarari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikularekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2013ko urtarrilaren 22an emandako txostenaren arabera proposatu du "su itzalgailuak hornitzea eta mantentzea bai hornitutakoko berriak bai lehen zeudenak, baita BIEak, sute-ahoak eta zutabe lehorrak mantentzea" zerbitzua emateko kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Lazkaoko Udalak kontratatzea beharko duen zerbitzuaren balio zenbatetsia kontuan izanik, gutxi gorabehera, urteko mila ehun eta berrogeita bi (1.142 €) euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe. Gastuak segidako traktu izaera iraunkorra du, konpromiso kreditu gaiari dagokion finantza eta aurrekontu xedapenen ondorioetarako.

Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua BABESA SUZAI S.A. enpresari esleitzea, izenpetutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak onartzen ditu:

LEHENENGO.- "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez "Su itzalgailuak hornitzea eta mantentzea bai hornitutakoko berriak bai lehen zeudenak, baita BIEak, sute-ahoak eta zutabe lehorrak mantentzea" zerbitzua emateko eratorritako kontratua (X12018, 1. Lotea) BABESA SUZAI S.A. enpresari (IFZ.:A20095196) esleitzea, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.



BIGARREN.- BABESA SUZAI S.A., N.I.F.:A20095196, enpresaren alde baimentzea eta xedatzea aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, udal aurrekontuan, funtzional ezberdinetan, "su itzalgailuak hornitzea eta mantentzea bai hornitutakoko berriak bai lehen zeudenak, baita BIEak, sute-ahoak eta zutabe lehorrak mantentzea" gastua jasotzen duten 212.01 kontusailen kargura.

HIRUGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

VI.- SUTEEN ETA INTRUSIOAREN AURKAKO SISTEMAK MANTENTZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA.-

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko foru diputatuak 2012ko azaroaren 27ko foru aginduaren bitartez, AREA 7 S.L. (IFZ.:B20160552) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez "suteen eta intrusioaren aurkako sistemen aurre hartze eta zuzenketako mantentze lanak" zerbitzua emateko esparru akordioa (X12018, 2. Lotea) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikularekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2013ko otsailaren 26an emandako txostenaren arabera proposatu du "suteen eta intrusioaren aurkako sistemen aurre hartze eta zuzenketako mantentze lanak" zerbitzua emateko kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Lazkaoko Udalak kontratatzea beharko duen zerbitzuaren balio zenbatetsia kontuan izanik, gutxi gorabehera, urteko bi mila eta berrogeita bi (2.042 €) euroko gastua ataraten da, BEZik gabe. Gastuak segidako traktu izaera iraunkorra du, konpromiso kreditu gaiari dagokion finantza eta aurrekontu xedapenen ondorioetarako.

Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua AREA 7 S.L. enpresari esleitzea, izenpetutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak onartzen ditu:

LEHENENGO.- "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez suteen eta intrusioaren aurkako sistemen aurre hartze eta zuzenketako mantentze lanak zerbitzua emateko esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X12018, 2. Lotea) AREA 7 S.L. enpresari (IFZ.:B20160552) esleitzea, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- AREA 7 S.L., N.I.F.:B20160552, enpresaren alde baimentzea eta xedatzea aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, udal aurrekontuan, funtzional ezberdinetan, "suteen eta intrusioaren aurkako sistemen aurre hartze eta zuzenketako mantentze lanak" gastua jasotzen duten 212.01 kontusailen kargura.



HIRUGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

VII.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 111 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 45,33€ ematea, urtarritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %98 da.
- 103 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 45,79€ ematea, urtarritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %99 da.
- 489 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 45,79 € ematea, urtarritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %99 da.
- 700 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuetarako hilean 46,25€ ematea, urtarritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 28 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 46,25€ ematea, urtarritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 135 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 45,33 € ematea, urtarritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %98 da.
- 692 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 39,79 € ematea urtarritik abendura eta alokairurako 225,00€ ematea, urtarritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %90 da.
- 670 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 36,96 € ematea, urtarritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 564 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 43,48 € ematea urtarritik abendura eta aurretiko zorpetze gastuetarako hilean 163,61€ ematea, urtarritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %94 da.
- 09-1-007 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 36,54 € ematea, urtarritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %79 da.
- 09-1-008 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 45,33 € ematea, urtarritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %98 da.
- 09-01-017 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko hilean 46,25 € ematea urtarritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 09-01-019 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko hilean 43,94 € ematea urtarritik apirilera eta alokairu gastuak ordaintzeko hilean 237,50 € ematea urtarritik apirilera. Ematen zaiona eskatutakoaren %95 da.



- 12-01-002 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko hilean 35,88 € ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 09-01-018 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko hilean 41,63 € ematea urtarriletik abendura eta alokairu gastuak ordaintzeko hilean 250€ ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 615 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 46,25 € ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 12-01-008 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko hilean 46,25 € ematea urtarriletik abendura eta alokairu gastuak ordaintzeko hilean 250,00€ ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 12-01-009 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko hilean 46,25 € ematea urtarriletik abendura eta alokairu gastuak ordaintzeko hilean 250,00€ ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 12-01-006 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairu gastuak ordaintzeko hilean 125,00€ ematea urtarriletik apirilera. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 12-01-004 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko hilean 46,25 € ematea urtarriletik ekainera eta alokairu gastuak ordaintzeko hilean 250,00€ ematea urtarriletik ekainera. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 12-01-005 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairu gastuak ordaintzeko hilean 250,00€ ematea urtarriletik otsailera. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 13-01-006 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko hilean 27,75 € ematea martxotik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 13-01-007 zbk.dun esped.: Alokairu gastuak ordaintzeko hilean 250,00€ ematea eta etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko hilean 46,25€ ematea maiatzetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 13-01-008 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko hilean 32,38 € ematea maiatzetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %70 da.
- 13-01-009 zbk.dun esped.: Alokairu gastuak ordaintzeko hilean 250,00€ ematea eta etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko hilean 46,25€ ematea maiatzetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 12-01-007 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko laguntzaren zenbatekoa aldatzea hilean 92,50€ izatetik 46,25€ izatera, urtarriletik abendura eta alokairu gastuak ordaintzeko hilean 250,00€ ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.



- 13-01-005 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko laguntzaren zenbatekoa aldatzea hilean 92,50€ izatetik 46,25€ izatera, martxotik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 13-01-002 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairu gastuetarako laguntzaren zenbatekoa aldatzea, hilean 187,50 € izatetik 237,50 € izatera eta etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko laguntzaren zenbatekoa aldatzea hilean 87,88 € izatetik 43,94 € izatera, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %95 da.
- 13-01-004 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko laguntzaren zenbatekoa aldatzea hilean 92,50€ izatetik 46,25€ izatera, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 13-01-001 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren logela bateko alokairu gastuetarako laguntzan baja ematea. maiatzean, etxebizitzaz aldatu duelako.

* Oharra: aurrekontu falta dela eta, urteko mantenimendu gastuetarako laguntzak %50era murriztuak izan dira.

VIII.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura Batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabaki hau hartu du:

Lazkao Txiki Musika Eskola.-

Lazkao Txiki Musika Eskolari Lazkaoko Udalaren 2013ko aurrekontuan izendatuta daukan dirulaguntzatik bigarren herena, hau da, LAU MILA ETA EHUN (4.100€) EURO ordaintzea.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

